



Ereñotzuko futbol kanpo osoa hartzen duen karpa estalia jarri dute, euririk egingo balu ere.

## Ereñotzun dena prest, igandean Eskola Txikien festa egiteko

■ Eskola Txikiek herri txiki eta auzoetako bizitzan duten garrantzia aldarrikatuko dute ■ Antolatzaileek 2000 lagunetik gora espero dituzte ■ Autobusak 10 minutuero daude Lastaola poligonotik.

ESKOLA TXIKIEN festa Ereñotzun egingo da igande honetan. Txirrita ikastetxeko guraso elkarte denbora luze aritu da festa antolatzen eta dena pronto-pronto daukate iganderako. Festa egun osoa izango da: goizean agu-

rrak, aurkezpen ofizialak eta haurrek prestatutako ikuskizunak, eta arratsaldean pailazoak, umeentzako jolasak, bertsoak, musika eta abar. Antolatzaileek 2000 lagunetik gora espero dituzte, (eguraldiak laguntzen badu), eta

montajea ere jende guzti hori hartzeko modukoa egin dute.

**Autobusak eta karpa**  
Goizeko 09:00etan hasita, autobusak etengabe ibiliko dira Lastaolako poligonotik Ereñotzura joan eta etorri.

Antolatzaileek autobusak erabiltzeko eskatu diote jendeari, auzoan ezingo baita kotxerik aparkatu. Ekitaldi guztiak egiteko, berriz, karpa erraldoi bat jarria dute futbol kanpoan, etorriko den jende guztia hartzeko modukoa. □

## Nikaragutatik antzerkia gaur

NIKARAGUAKO Guachipilin titere antzerki taldeak emanaldia eskainiko du gaur arratsaldean.

Emanaldiak Biteri Kultur etxean izango dira eta bi saio eskainiko dituzte: umeentzat 17:00etan "Historias de sol y luna" eta helduentzat 20:00etan "Cuecatil".

Guachipilin taldea 1981ean sortu zen eta titereen bidez hezkuntzara zuzendutako ekintzak egiten dituzte. Telebistarako lanak eginen hasi ziren baina antzerkigintzan aritzen dira orain batez ere. Antzerkia, Udalak onartutako Kooperazio eta sentibilizazio proiektuaren barruan izango dira. □

## Euskeraz ikasi edo hobetzeko tailerrak eta autoikaskuntza

HERNANI-Astigarragako AEK-k euskera ikasi edo hobetzeko bidea jarri du uztaileako. Bate-tik, euskera tailerrak egingo dituzte, urte osoan ikasitakoa beste modu batera lantzeko. Bestetik, autoikaskuntza egitasmoak izan duen arrakasta kontuan izanda, uztailean ere eskaintzea erabaki du euskaltegiak.

Informazioa jaso edo matrikulatzeko: 943-557801 telefonora deitu edo, edo AEKra bertara jo (Larramendi 14). □

## PELOTA

### Aia-Hernani gaur

HERNANIK Herri Arteko partidua jokatu du gaur Aiaren kontra. Semifinaletako aurreneko partidua da eta Aian jokatu da. Partiduak 21:00etan hasiko dira. Pelota Elkarteak autobusa jarriko du, debalde: Atsegindegina 20:00etan. □

## Mus Txapelketak

MUS aktibitate handia dugu egunotan. Gaur Etxeberriko finala eta hiru-laugarren postuak jokatu dira. Finala: Xefe-Bilbao/Alejandro-Gorka. Hiru eta laugarren postuak: Cipri-Abel/Cesar-Candido. Santa Barbaran ere finala larunbatean. Peñagarikano-Jose Mari, Jose Leon-Julio, Carlos-Ceci eta Bixente-Fernandoren artean erabakiko dira lau aurreneko postuak. Ereñotzun, berriz San Antonio-tako txapelketa hasiko da gaur. 10:30etan Ur-Mian. □

## Kiroldegian udarako aktibitateak

KIROLDEGIAK udarako jarduerak antolatu ditu: igeriketa, aerobica, buzeoa, karatea eta piraguismoa. Uztailean izango direnak: igeriketa heldu eta umeentzat (mantenimendua eta igeri-

hasteko ikastaroa), aerobica, karatea, piraguismoa eta urpeko jarduerak. Abuzturako jarduera berriz, igeriketan: helduak hastapena, 3 eta 4 urtekoak, eta 5 urtetik gorakoak hastapena. Aktibi-

tateetan izenemateko epea ekainaren 10ean, astelehenean zabalduko da. Igeriketako hastapeneko jardueretan izenemateak ekainaren 15, 16, 17 eta 18an egingo dira. □

**PROCOLOR ZENTRUA**  
**Landaribar, s.l.**  
Pintatzeko ekipoa  
Industri eta dekorazionario pinturak  
Pintatutako paperak  
Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

Betiko lekuan,  
eguneroko ogirik  
onena banatzen!  
**ANTZIOLA 3**  
Tel. 943 55 17 91  
**OKINDEGIA**  
**ANTZIOLA**  
Denda berri bat zabaldu dugu:  
Ogia, pastelak, kafea,  
gozokiak, refrescoak,...  
Ordenagailuak,  
jendeak erabiltzeko.  
**MONTEBIDEO, 3**

**KixKal**  
Taberna  
naqusia 15  
Egunero pintxo aukera  
ederra. Asteburuetan  
pintxo beroak ere bai.

**BELAZARTE ETXEA**  
Erretegia - Nekazal Etxea  
Pagoaga 10 -Tel: 943 33 15 69  
(Ugaldetxotik km 1era)



## Elizatzoko bizilagun batzuk etxe inguruak urbanizatzeko eskatzen diote Udalari

■ Arazoa aspalditik dator ■ Terrenoa pribatua da eta hor dago kokka.

ELIZATXON 37, 38, 43, 44, 47 eta 48 blokeetako bizilagunek urbanizatzeko eska-tzen diote Udaletxeari, dena ez bizitzeko moduan omen dagoelako: hondatua, arratoiak...

Orain dela 40 bat urte egin ziren etxe horiek eta gaur egunean, lurra, sarrerak eta abar oso baldintza txarretan daude, eta bizilagunak keja dira.

Bizilagunek Udalari eskatzen diote urbanizazioa, baina lurrak partikularak dira eta hor dago kokka. Urbanizazioa egiteko eskaera, ez da oraingo kontua, 1994an egin zen. Bizilagunek diotenez, lurrak Udalaren esku utzi eta urbanizazioa egingo zitzaie agindu zitzaie. Bizilagunek konpondu beharreko lur-zatia Udalari emateko tramiteak egin dituzte. Eta orain, arkitektoak atzera bota du kontua, ez dagokiolako Udalari terreno partikularak urbanizatzea.

**Udala elkarlanerako prest** Elizatzoko auzotarrek egin duten urbanizazio eskariaren aurrean "legez lur partikularak urbanizatzea ez dagokio Udalari" azaldu dio Manuel



Urbanizazioa egitea 215.000 euro inguru kostako da.

Fraile hirigintza zinegotziak Kronikari. "Diru publikoa lur publikoan inbertitzeko da. Gainera, herrian badaude antzeko problema gehiago ere eta Udalak ezin du diskriminaziorik egin". Frailek adierazi duenez, Udalak soluzio posibleak eskaini dizkie bloke horietako bizilagunei.

Elizatzoko auzoko lurrak publiko egiteko tramiteak, Tripartitoko gobernuaren zegoela egin ziren. Bizilagunek egiten duten eskaeraren aurrean EA-EAJk jarrera garbia azaldu du: lurrak publiko egiteko tramitea onartzen ez bada, arazoari beste konponbide bat eman behar zaio. □



Ibon Zabala eta Beñat Aizpitarte txapeldunak.

### ■ PELOTA

#### Aizpitarte-Zabala Euskadiko txapeldun

HERNANIKO pelotari gazteek berriz ere oso goian utzi dute herriko maila. Beñat Aizpitarte eta Ibon Zabalak Euskal Herriko txapelketa irabazi dute, bizkaitarrak 18-17 mendean hartuta.

Aizpitarte eta Zabala Gipuzkoako ordezkari izan dira txapelketan. Bizkaitarrak eta gipuzkoarra puntuz berdinduta iritsi ziren azkeneko partidura, eta hor Hernaniko gazteak irabazi zuten. Partidua Araban jokatu zen. □

## Hernaniko bertsolariak Gipuzkoako Eskolarteko finalean

GAUR jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala. Lehen fasea jokatu ondoren, Hernaniko bertsolariek izango dute beren abileziak erakusteko aukera. Izan ere Hernaniko taldetik baditugu finalista aurten ere. Txikietan (14 urte arte) taldeka, finalerako sailkatu den Hernaniko laukotea: Arnaitz Lasarte, Unai Gaztelumendi, Ane Lujanbio eta Jon Hidalgok osatua da. Nagusietan berriz Hernaniko bertso eskolako bi partaide izango dira: Beñat Gaztelumendi eta Izarne Zelaia. Guztiek ere ez dute lan erraza izango. Finala gaur jokatu da, Zumarragako polikiroldegian, arratsaldeko 16:00etan. □



Arnaitz Lasarte pentsakor eta Ane Lujanbio kantuan.



Urumeako ikasle bat Reciclator bideojokoan jolasean.

### ■ HITZ BITAN

#### ✓ INGURUGIRO EGUNA

**'Reciclator' bideo jokoak umeak sensibilizatzeko.** San Marcos Mankomunitateak bideo joko bat atera du umeak ingurugiroaren gaian eta zaborraren kontuan sensibilizatzeko. Bideojokoak *Reciclator* du izena eta ordenagailuan jartzen da. *Reciclatorreko* protagonista ume bat da bere abildadeak zaborra bildu, apartatzen eta berziklatzen erakusten ditu. San Markosek Hernaniko Urumea Ikastolan egin zuen aurkezpenetako bat. Xabier Balerdi Gay Murreko zuzendariak Kronikari adierazi dionenez, ume-ak oso gustora hartu dute jokoak. San Markosek jokoak debalde banatu die 6-12 urteko Mankomunitateko ume guztiei. Denera, 14.000 banatu dira eta 46.000 euro inbertitu ditu.

#### ✓ ISTRIPUA

**Gasoila Urumeara, Lastaola parean.** Astelehenean istripua gertatu zen Lastaolan. Talleres Bengoetxea zegoeneko pabeloietan, permisirik gabe zanga irekitzen ari zirela, gasoila depositua zulatu zuten. Gasoila inguruan zabaldu zen eta gero Urumeara joan, Udaltzaingoaren informaren arabera. Gauzak horrela, Udalak esku hartu eta zenbait neurri hartu ditu: 1) Urumeara bonbeoa gelditzea dena garbitu arte; 2) gasoil guztia bildu eta zikindutako lurrak eramatea 30 egun baino lehenago eta 3) Jaurlaritzak homologatutako enpresa batek lurrak analizatzea.

### HERIOTZAK

Fernando Zaitegi Loustaunau  
Asteazkenean hil zen 37 urte zituela

### IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Mielguri. 12:00: Iparraldeko kronika. 12:30: Urumea jetsiera. 22:00: Rassklat. Musika beltza.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gomez  
Kale Nagusia  
☎ 943 554892  
▶ Gaez: Gomez  
Kale Nagusia  
☎ 943 554892

### IRAGARKI MERKEAK

Hernanin pisua salgai. 90 m2, 4garren pisua, igogailuarekin eta oso eguzkitsua. Erreformarik egin gabe sartzeko moduan.: 677 32 89 23.

Londresen *au-pair* moduan euskal-ingeles etxe batean irailetik aurrera lanean hasteko neska bat behar dut: Tfnoa: 00441189611153 (Paula).

Sukaldari euskaldun bat behar dugu tabernarako. Goizez deitu: 943 556706

Hernanin okindegi-goxotegia alkilatzen da. Ondo saltzen du. 657-792948.

Arrigoain  
jatetxea

- Eguneko menua  
- Plater konbinatuak  
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 55 00 97

-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

**MEGAR, c. b.**  
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK  
HORMA ARMARIOAK  
Neurrira egiten ditugu.  
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -  
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK  
Eskaintza: FAGOR 1/2 Karga  
ONTZIGARBIGAILUA 400 euro.

Txirrita kalea 15  
Tel 943 551125 - Faxa 943 551603  
HERNANI (Gipuzkoa)